PDF irisgarria

Irakurketa Errazean

Eliako Hobiaren Monolitoa

Eliako Hobiaren Monolitoa

Eguesibarren dago, Nafarroan.



Mapa honetan kolore gorrian
Eguesibar non dagoen ikus dezakezu.

1936. urteko Estatu Kolpea eta gero
frankistek San Kristobal Gotorlekua preso politikoak,
hau da,frankismoaren aurka zeuden pertsonak
espetxeratzeko erabili zuten.
Pertsona asko hil ziren bertan.

1938ko maiatzaren 22an
preso asko gotorlekutik ihes egin
eta Espainia eta Frantzia arteko muga
gurutzatzen saiatu ziren
baina ez zuen ia inork lortu.

Preso talde batek
Eguesibarrera ihes egin zuen

Artzibar eta Erroibar gurutzatu nahi zutelako
horrela Frantziara heltzeko.

Frankistek Elian
gotorlekutik ihes egin zuten
preso hauetako 3 atxilotu zituzten.

Eliako Artadizo lursailean
hil eta lurperatu zituzten.
Uste dute talde horretan
ihes egitea lortu zuen beste gizon bat zegoela.

2015. urtean
Txinparta San Kristobal Fuertea elkarteak
eta Eguesibarko Udalak
Aranzadi Zientzia Elkarteari
3 pertsona hauen gorpuzkiak berreskuratzeko
desobiratze bat egitea eskatu zion.

Nafarroako Gobernuko
DNA Bankuari esker jakin ahal izan zuten
gorpuzkietako bat Vicente Mainz Landarena zela.
Vicente elektrikaria zen,
Bidankozeko errotan lan egiten zuen eta UGTkoa zen.
UGT gaztelaniaz
Unión General de Trabajadoras y Trabajadores
esan nahi du.

San Kristobal Gotorlekuan espetxeratu baino lehen
frankistek Vicente 1936.urteko Estatu Kolpea
eta egun gutxietara
atxilotu zuten.
Gerra-kontseilu batek epaitu zuen
eta bizitza osoan kartzelan egotera zigortu zuten.
Gerra-kontseilu bat epaitegi militar bat da.

Gero frankistek
San Kristobal Gotorlekuan espetxeratu zuten.

2017. urtean Eguesibarko Udalak
bertan hil zituzten presoak gogorarazteko
plaka bat jarri zuen.

Hemen plakaren argazkia ikus dezakezu:

